

LE TEMPS D'AIMER LA DANSE

BIARRITZ

FOCUS
KARIBE-EUSKAL HERRIA

Artistak urralde(t)an
Irailak 10 > 13, 2022



**Artistak
lurralde(t)an**

**Irailak
10 > 13, 2022**

Maitaldia jaialdiko 32. edizioa irailaren 8tik 18ra egingo da. Zentro Koreografiko Nazional – Malandain Ballet Biarritzeko zuzendari Thierry Malandain zuzendari duela, jaialdia dantzaren arloko ospetsuenetako bat bilakatu da eta 15.000 ikusletik gora biltzen ditu urtero. Egitarau eklektikoa eskainiko du Biarritzen eta aglomerazioko beste udalerrri batzuetan, estetika eta koreografia-lengoaia anitzetara irekia.

Dantza eta musika herrikoiak nortasun-adierazle dinamikotzat dituen eta mugaz gaindiko lurralde den Euskal Herrian kokatua dagoenez, ZKNren helburuetako bat da topaketa artistiko eta hezitzaileak garatzea beste lurralde batzuetako artista eta profesionalekin, sare-logikak sendotu eta lankidetzak aukera berriak ahalbidetzeko xedearekin.

ZKN-k, euskal kultur erakundearen babesarekin, ekimen berri bat abiatu du Maitaldiaren baitan, «Artistak lurralde(t)an» izeneko Focusa, alegia. Bertan, Karibeko (Guadalupe-Martinika-Guyana) artista, ikertzaile eta profesionalak hartuko ditugu aurtan. Ekimena Dantza Zentro Nazionalaren eta Kulturaren eta Itsasoz bestaldeko lurraldeen ministerioen laguntzarekin antolatu da.

Irailaren 10a eta 13a bitartean, 4 egun horietan **topaketa profesionalak, ikuskizunak, ekitaldi irekiak, erakusketak eta dokumentalak** eskainiko dira diagnostikoak, jakintzak, proiektuak eta gomendioak trukatu eta partekatzeko, gai komun batetik abiatuta: **«egun ziurgabetasunean eta zalantzan bizi diren Euskal Herriko eta Karibeko errepertorioak babestea eta sustatzea»**. Ondoko **3 ardatzak** izango dira oinarria: **sorkuntza, transmisioa eta mugikortasuna**.

Xedea da hitza ematea errepertorio horiek berrikusi edo berrasmatu dituzten horiei, beren transmisioan eta hedatzean inplikaturiko erakundeei eta programatzaileei; baina baita bertaratuko diren ikertzaileei ere, kultura-ondare ukiezin hau babesteko eta berritzeko baldintzen inguruan galdetzeko.

Heziketa-jardunaldien aztergaiak: **Begirada gurutzatuak, koadrila euskaldunen eta kreolen inguruan**. DZNren babesarekin antolatuta, topaketa hauek jaialdia animatzen lagunduko dute.

Karibea eta Euskal Herria, beren lurraldeetako berezitasuna, beren kultura-nortasunen konplexutasuna eta aberastasuna, beren ondare bizi eta bitxia, uniformizazioaren aurrean agertzen duten erresistentzia eta kultura-eskubideen alde abian duten borroka dela eta, lur emankorrak dira egungo kultura-garapenerako eta sorkuntza artistikorako. Artistikoa bezain soziala, kolektiboa eta solidarioa da dantza eta tradizioa eta modernotasuna, nortasuna eta mestizajea bezalako gaiak ezbaian jartzen ditu.

FOCUS KARIBE / EUSKAL HERRIA

Prozesu-aniztasuna balioan jartzeko, kultura-antzekotasunak eta beren itzulpen garaikideak esploratzeko eta lanen eta artisten mugikortasuna handitzeko bi lurralde hauen artean.


**MINISTÈRE
DE LA CULTURE**
*Liberté
Égalité
Fraternité*


**MINISTÈRE
DES OUTRE-MER**
*Liberté
Égalité
Fraternité*

CN D
Centre national de la danse

 **eke** 
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

 **malandain**
ballet | biarritz

BEGIRADA GURUTZATUAK KOADRILA EUSKALDUNEN ETA KREOLEN INGURUAN



© Laurent de Bompuis

Focus Karibe – Euskal Herria delakoaren baitan, Isabelle Calabrek **ikerketa-ariketa bat zuzenduko du euskal eta Karibeko munduetako koadrila dantzen inguruan**. Dantza kazetari espezializatua da Calabre eta dantzaren inguruko zenbait lan idatzi ditu. Egun, «Koadrila kreolen Historia Estetikoa(k) eta Praktikoa(k)» izeneko ikerketa garatzen ari da Dantza Zentro Nazionaleko Koreografia-ikerketa eta -errepertorioko Zerbitzuaren babesarekin.

Ariketa honen gaia errepertorio horien ezagutza eta transmisioa izango da, bai eta jokatzeko duten rol sozial eta sinbolikoa ere.

Heziketa-jardunaldi hauen xedea da Karibeko eta itsasoz bestaldeko lurraldetako eta Euskal Herriko mugaz gaindiko lurretako dantzek egun bizi duten egoera aztertzea.

Frantziako Gortean eta, ondoren, dantza-aretoetan XVIII. eta XIX. mendetan zehar antzeztu ziren koadrila dantzatuak jatorri dutela, lurralde horietako koadrilek beren jatorrizko matrizearen irudikapen/eraldatze sortzaileak eta orijinalak eskaintzen dituzte eta, horrenbestez, beren gizarteen eta biztanlerien nortasun-adierazpenak dira, baita egun ere (hasierako beren eredia folklore-izaerako ekitaldi urri batzuetan baino ez baita praktikatzeko egungo Frantzian).

Halaber, koadrila ezberdin horietako estetikak alderatuko dira; eta jatorrizko koadrila frantziarra nola eraldatu eta moldatu duten aztertuko da. Dantza horiek praktikatzeko dituztenek (dantzariak zein musikariak edo jantzi-jostunak) zein koadrila dantzatuak transmititu edo berritzen dituzten eragileak aipatuei ematen dieten esanahia eta ikuspegia landuko da ere.

Gai horiek landu eta aztertuko dituzten dantzaren arloko adituez gain, kultura-antropologia, etnomusikologia edo transmisio pedagogikoaren arloetako ikertzaile adituek eztabaida elikatu eta koadrilen inguruko begirada eta diziplina-gerturatzeko ezberdinak eskainiko dituzte.

FOCUS KARIBE-EUSKAL HERRIA. EGITARAUA

DIFÉ KAKO

Larunbata, irailak 10

12:30h

Entsegu publikoa

Difé Kako konp.

Gare du Midiren pareko lorategi publikoa

17:00h

Harrera lagunkoia

Focuseko parte-hartzaile eta eragileei

Plaza Berriko Roof top

21:00h

Difé Kako konp.

Cercle égal demi-cercle au carré lana

Casino municipaleko antzokia

22:30h

Cie Difé Kako

Bal Konser déchaîné dantzaldia

Plaza Berri

Igandea, irailak 11

09:30h

Harrera parte-hartzaileei

Gare du Midi, Gamaritz aretoa

10:00h

Jardunaldien irekiera-ekitaldia

Zentro Koreografiko Nazionala - Malandain Ballet

Biarritz - Euskal Kultur Erakundea - Kulturaren

Ministerioa - Dantza Zentro Nazionala

10:30h

Begirada gurutzatuak

Lurraldeko dantzen eta artisten inguruan

Gaia: errepertorio horien ezagutza eta transmisioa.

- Itsasoz bestaldeko testuingurua aurkezteko: "Dantza herrikoiek Karibetan duten ron sozial eta sinbolikoa: Koadrila(k)- Quadri Gwoka- Bélé - Haute taille"

- Iparraldeko eta Hegoaldeko testuingurua aurkezteko: "Euskal dantzatik euskal dantzetara: euskal nortasunaren adierazle sendoa".

Sorkuntzari eta artisten mugikortasunari buruzko tailer profesionalen sarrera.

Koadrila kreole eta euskaldunen inguruko mintegiaren sarrera. Erakustaldia koadrila herrikoien dantzarien eskutik.

OTORDUA 12:00-14:00 14:00h > 16:30h

Tailer praktikoak eta transmisioa

Transmisiorik al dute dantza herrikoiei kreoleak eta euskaldunak? Egungo egoeraren analisia. Lurralde bakoitzeko testuingurua eta inplikaturiko erakundeak oinarri hartuta, irakaskuntza-praktika ezberdinak identifikatu eta alderatuko dira, Bai eta dantzari profesionalak hezteko aukerak, praktika amateurren garrantzia eta babesa eta ikusleen sentsibilizazioa (EAC, bitartekaritza) eta errepertorioen kontserbazioa aztertu ere.

MARITZULI

17:00h

Koadrila, Maritzuli konpainia,

Irungo 8 erraldoirekin batera

Bellevue plaza

21:00h

Kukai Dantza

Eta Orain

Atabal -Egungo musika, eszena

KUKAI DANTZA



© Olivier Houeix



© Peggy Fargues

Astelehena, irailak 12

09:30h > 12:00h

Sorkuntza tailerra – Mahai-ingurua

Gare du Midi, Gamaritz aretoa

Zer nolako sorkuntza-prozesuak, errepertorio herrikoien kultura-transmisioa oinarri hartuta Sorkuntza, egun: jarraitutasun historikoaren eta birformulazioaren artean: konfrontazioa, mestizajea, nahastea, zopatzeta, uztartzea, erresistentzia, berritzea?

Euskal Herriko eta Antilletako koreografo asko errepertorio horietaz baliatzen dira, aldarrikatzen dituzte edo alboratzen dituzte denbora batez. Beren ikuspegia anitza da eta esperientzia partekatzea, nahitaezkoa da lanen eta artisten mugikortasuna sustatzeko.

OTORDUA 12:00H-14:00H

14:00H > 16:00H

Mugikortasun tailerra - Mahai-ingurua

Gare du Midi, Gamaritz aretoa

Eraiki beharreko zubiak: zer nolako babesa du lurraldeetako ekoizpen artistikoak eta beren hedatzea nazio-mailan eta nazioartean?

Lanak Karibetik kanpo hedatzea mugatzen duten oztopoak, itsasoz bestaldeko eta euskal herriko lanen eta artisten mugikortasuna babesteko eta sustatzeko estrategiak aztertuko ditugu artista, jaialdi-zuzendari, programatzaile eta erakundeekin (artisten egoitzak, koprodukzioa, jaialdiak).

Asteartea, irailak 13

10:00h-12:00h

Hastapen ikastaroa: koadrila euskalduna eta kreolea

Gare du Midi – Gamaritz aretoa

10:00h- 12:00h

Topaketa profesional informalak: sareak sortzea

Gare du Midi – Plaza Berri

OTORDUA 12:00h-14:00h

14:00h > 15:30h

Truke eta ondorioen laburpena

Errepertorio koreografikoak eta kultura-ondare ukiezina.

Elkarrekin lan egitea, lurraldeetako indar biziak batuz.

Gare du Midi – Gamaritz aretoa

16:00h > 17:00h

Dokumentala

Asou chimen DKB (Danmyé, Kalennda, bèlè) Zuzendaria, Christian Forêt Médiatoka - Auditorium

17:00h

Bisitaldia erakusketara

Karibeko musika eta dantza herrikoiak Argazkilaria, Laurent de Bompuis Médiatoka – Galeria

17:30h

Koadrilen erakustaldia

Maritzuli konpainiaren eskutik



21:00h

Zimarèl Léo Lérus konp.

Entropie

Michel Portal Antzokia - Baiona Hego Akitaniako Eszena Nazionala



Asteazkena, irailak 14

11:00h

Ikuskizuna, Difé Kako konp.

Joséphine2B

Plaza Berri

15:00h > 16:00h

Proiektzioa

Dokumentala

Du carré au cercle, figures d'une itinérance de création Difé Kako konpainia bertan dela Zuzendaria: Christian Forêt Médiatoka – Auditorium



HARREMANAK

Koordinazio nagusia :

Marie –Christine Riviere

cmarieriviere@gmail.com

06 44 83 72 48

Koadrilen inguruko mintegia:

Isabelle Calabre

icalabre@fre.fr

06 09 88 48 51

Protokolo:

Sabine Oxandaburu

protocole@malandainballet.com

06 77 98 08 70

INFO

Informazio praktikoak

Lekua:

CCN Malandain Ballet Biarritz

Gare du Midi

23 avenue Foch

64200 Biarritz

Aireportua:

15 minutura, Biarritz – Angelu – Baiona aireportua

Trena:

10 minutura, Biarritzeko geltokia, AHT zerbitzua

Paristik

Voiture :

A63 et A64 autopistak Frantziatik edo Espainiatik,

Biarritz irteera 6 minutura

Aparkaleku publikoak eraikinetik gertu

Ikus

informazio guztia



Maitaldia

2022ko irailak 08 > 18

Zuzendari artistikoa

Thierry Malandain

letempsdaimer.com

LE TEMPS
D'AIMER
LA DANSE
BIARRITZ